

## Hiriaren Urrezko Domina Eusko Ikaskuntzari emateari buruzkoa

“Euskal kultura garatzeko baliabide egonkor eta iraunkor gisa” sortu zuten aurten 100 urte Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoa eta Nafarroako Aldundiek Eusko Ikaskuntza. Hasiera hartan, “Euzko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos” deitu zioten sortu zuten erakunde zientifiko-kulturalari. 1918ko abenduaren 22an sortu zen ofizialki erakundea Donostian. Aurrez irailean egin zen Oñatin Eusko Ikaskuntzaren lehenengo biltzarra euskal kultura hedatu, ikertu eta Euskal Herriko hainbat arazorentzako irtenbideak topatzeko helburuarekin. Garaiko lau aldundietako lehendakariak eta Iruñeko, Baiona eta Gasteizko gotzainek osatutako Patronatuko Batzordeak antolatu zuen Oñatiko biltzarra. Alfonso XIII. erregeak hasiera eman zion irailaren lehenean etorkizunerako hausnarketez gain, festa eta hainbat kultur ekitaldi eta erakustaldi izan zituen zortzi eguneko biltzarrari. Handik hilabete batzuetara, Donostiako Gipuzkoa plazako Aldundiaren Jauregian egin zuten lehendabiziko bilera biltzarrean izendatutako ordezkariak elkartearen batzar iraunkorra osatzeko: *Euzko-Ikaskuntza* izena erabaki zuten euskaraz eta *Sociedad de Estudios Vascos* gazteleraz. Ohorezko presidente Arturo Campión izendatu zuten “euskal gai ezberdinetan egin zuen maisu lan eskergagatik miresmena adieraziz” ; Julian Elorza lehendakari eta Angel de Apraiz idazkari nagusi izendatu zituzten. Bilera horretan diru kontuak egin zituzten eta lehendabiziko babesak lortzeko, “aldundietako eta lau hiriburuetak aurrekontuak oraindik onartu gabe izateaz baliatzea” erabaki zuten; hala, aurrekontuetan “egin beharreko lanaren garrantziaren araberrako babes” eskatuz. Bilera horretan bertan Nafarroako ordezkariak proposatuta Eusko Ikaskuntzaren egoitza Donostian jartzea erabaki zuten “Euskal Herriko hiriburuen artean zentrikoena zelako eta iristeko errazena zelako”. Hala, 1918an “euskal kultura-modernitatearen hasiera” ekarri zuen Eusko Ikaskuntza sortu zen Donostian eta bertan segitzen du (Miramar Jauregian) 2018an, mende oso baten lekuko izan ondoren.

Eusko Ikaskuntzak euskal kulturari egindako ekarpena eta kultura unibertsala Euskal Herrira

## Concesión de la Medalla de Oro de la Ciudad a Eusko Ikaskuntza

Las diputaciones de Álava/Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra crearon Eusko Ikaskuntza - Sociedad de Estudios Vascos hace 100 años, “como instrumento estable y permanente para desarrollar la cultura vasca”. Por aquel entonces, la asociación científico-cultural creada fue bautizada como “Euzko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos”. La asociación surgió oficialmente el 22 de diciembre de 1918, en San Sebastián. Anteriormente, en septiembre había tenido lugar el Oñati el primer congreso de Estudios Vascos con el fin de difundir e investigar la cultura vasca y de buscar soluciones a diversos problemas de la sociedad vasca. El congreso de Oñati fue organizado por una Junta Patronal compuesta por los presidentes de las cuatro diputaciones de la época y los obispos de Iruña-Pamplona, Bayona Vitoria-Gasteiz. El uno de septiembre el rey Alfonso XIII inauguró un congreso de ocho días de duración en el que, además de reflexionar en torno al futuro, se organizaron fiestas y numerosos eventos y exhibiciones culturales. Pocos meses después, los representantes electos en el congreso se reunieron por primera vez en el Palacio Foral de la plaza de Gipuzkoa donostiarra para conformar la primera junta permanente de la asociación: optaron por el nombre *Euzko-Ikaskuntza* en euskera y por *Sociedad de Estudios Vascos* en castellano. Nombraron presidente honorífico a Arturo Campión, “en señal de admiración por el prolífico y magnífico trabajo realizado en torno a distintos aspectos de la cultura vasca”. También nombraron presidente a Julián Elorza y secretario general a Ángel de Apraiz. En aquella reunión, además, hicieron números y para lograr las primeras ayudas decidieron “aprovechar que aún no se hubieran aprobado los presupuestos de las diputaciones y de las cuatro capitales”, solicitando un “apoyo acorde a la importancia de la labor que se va a llevar a cabo”. En esa misma reunión, y a propuesta de la representación navarra, se decidió que la sede de Eusko Ikaskuntza - Sociedad de Estudios Vascos estuviera en San Sebastián, “por ser la más céntrica entre las capitales vascas y la que mejores comunicaciones tiene”. Así, en 1918 surgió en San Sebastián Eusko Ikaskuntza – Sociedad de Estudios Vascos, entidad que supuso “el inicio de la modernidad en la cultura vasca”. Y aquí sigue en 2018 (en el Palacio Miramar), tras ser testigo de todo un siglo.

La aportación de Eusko Ikaskuntza – Sociedad de Estudios Vascos a la cultura vasca y su labor para

hurbiltzeko egindako lana izugarria izan da mende osoan zehar; gaurko Euskal Herria ulertzeko oinarri sendoak ezarri izan ditu Eusko Ikaskuntzak urte hauetan guztietan. Zeregin horretan, Donostiako hiria eta Donostiako herritar asko bidelagun izan ditu Eusko Ikaskuntzak; Donostiako Udala hasiera-hasieratik izan da bazkide, eta ekimen asko hartu eta babestu ditu hirian bertan.

Eusko Ikaskuntza sortu eta berehala (1919ko irailean ) Euskal Udalen Biltzarra egin zen Donostian; Eusko Ikaskuntzaren altzoan egin ziren Euskararen Akademia sortzeko bilera eta lan guztiak: 1919ko irailaren 21ean sortu zen Euskaltzaindia. Ikastolen sorreran aitzindari izan ziren Miguel de Muñoa (euskara hutsezko lehen ikastetxea, Donostia 1914) eta Elbira Zipitria (gerraostean sortutako lehen ikastola) bazkide izan ziren. 1927an Eusko Ikaskuntzak Aldundian zuen egoitzan Euskal Liburutegia ezarri zuen; hasieratik Euskal Unibertsitatea eta autonomia politikoa lan ildo nagusitzat ezarri zituen Eusko Ikaskuntzak. Unibertsitate mailako Udako Ikastaroak hasi zituen Donostian (1927an ) eta Euskal Unibertsitatearen lehendabiziko urratsak egiten hasi zen 1932an Donostiako Ikasketa zientifikoen zentroa sortuz. Halaber, garai hartan euskarazko antzerkiaren suspertzaile izan zen Eusko Ikaskuntza: Euskal Herri osoko antzerki taldeen arteko lehiaketak antolatu zituen eta finala Donostiako Antzoki Zaharrean jokatzeko. Orobat aipatzekoa da Eusko Ikaskuntzak emakumeak kulturaren eta zientziaren arloan barnertzeko egindako ahalegina (1920an Euskal Etnografiari buruzko ikastaroa antolatu zuen emakumeentzat ). Gerra Zibilak eta diktadurak etena ez ezik debekua ekarri zion Eusko Ikaskuntzari. Biarritzen (1948) eta Baiona-Ustaritzen (1954) antolatu zituen garai horretan biltzarrak. 1978an berrindartu zuen Eusko Ikaskuntzak lanean jarraitzeko konpromisoa eta baita ere Donostiako egoitza "eusko ikaskuntzen eta ikerketen gune" bihurtzeko erabakia.

Gure herriaren historia kulturean mugarri izan diren gertaera askoren eragile izan da Eusko Ikaskuntza, eta horien lekuko paregabe izan dira Donostia eta donostiarrak.

acercar la cultura universal al País Vasco han sido tremendas a lo largo de todo el siglo; en todos estos años, Eusko Ikaskuntza – Sociedad de Estudios Vascos ha sentado unas bases sólidas para comprender el País Vasco actual. Y en esa labor, Eusko Ikaskuntza ha contado con el apoyo de la ciudad de San Sebastián y de muchos y muchas donostiarras. El Ayuntamiento de San Sebastián ha sido socio desde el mismo comienzo y ha acogido y apoyado numerosas actividades en la ciudad.

Recién creada Eusko Ikaskuntza - Sociedad de Estudios Vascos (en septiembre de 1919), se celebró la Asamblea Municipal Vasca en San Sebastián; y la entidad dio cobijo a las reuniones y trámites previos necesarios para crear la Academia del Euskera: el 21 de septiembre de 1919 nació Euskaltzaindia. Miguel de Muñoa (primer centro escolar que enseñó únicamente en euskera, San Sebastián, 1914) y Elbira Zipitria (primera ikastola creada tras la guerra), pioneros en la fundación de ikastolas, fueron socios de la entidad. En 1927 Eusko Ikaskuntza – Sociedad de Estudios Vascos estableció una Biblioteca Vasca en su sede de la Diputación; desde el mismo comienzo, Eusko Ikaskuntza – Sociedad de Estudios Vascos se fijó dos líneas de trabajo principales: Universidad Vasca y autonomía política. Impulsó Cursos de Verano de nivel universitario en San Sebastián (1927) y en 1932 sentó los primeros cimientos de lo que luego sería la Universidad del País Vasco, creando el centro de Estudios Científicos de San Sebastián en 1932. Asimismo, por aquel entonces Eusko Ikaskuntza – Sociedad de Estudios Vascos promovió el teatro en euskara: organizó concursos entre grupos teatrales de todo el País Vasco y la final tenía lugar en el Teatro Principal de San Sebastián. También cabe destacar el esfuerzo realizado por Eusko Ikaskuntza - Sociedad de Estudios Vascos para promover la presencia de la mujer en el ámbito cultural y científico (en 1920 organizó un curso sobre Etnografía Vasca para mujeres). La Guerra Civil y la Dictadura no solo acarrearón la interrupción de su actividad, sino también su prohibición. En ese período, organizó sendos congresos en Biarritz (1948) y Bayona Ustaritz (1954). En 1978 Eusko Ikaskuntza - Sociedad de Estudios Vascos reafirmó su compromiso por seguir trabajando, así como la decisión de convertir a su sede de San Sebastián en "centro de investigaciones y estudios vascos".

Eusko Ikaskuntza – Sociedad de Estudios Vascos ha sido la promotora de numerosos eventos que han constituido un hito en la historia cultural de nuestro país y San Sebastián y las y los donostiarras han sido testigos privilegiados de

todos ellos.

Donostiari emandako zerbitzu ohiz kanpokoak eta Udalaren ohore eta goraipameneren araudiak jartzen duena aintzakotzat harturik, sari batzuk ematea egokitzen da, eta sari horietan denetan garrantzitsuen hiriaren Urrezko Domina dugu.

Atendiendo a los servicios extraordinarios prestados al municipio de San Sebastián cabe, de conformidad con el vigente Reglamento de Honores y Distinciones, la concesión de diversos galardones, entre los que se encuentra como galardón más importante, el de la Medalla de Oro de la ciudad.

Hori guztia kontuan izanik, eta, espedientean argi geratu den bezala, hiriaren aitortza berezi hori egiteko behar adina zio baduela, eta, era berean, erakunde honek mendeurrena ere baduela aurten ikusirik, EH BILDU udal taldeak proposatu eta gainerako udal talde guztien onartu eta bat egin ondoren, hauxe da Udalbatzari proposatutako

Teniendo en cuenta todo ello, considerando que concurren motivos suficientes, tal y como queda acreditado en el expediente, para el especial reconocimiento de la ciudad, y en vista de que la entidad celebra este año su centenario, a iniciativa del Grupo político municipal EH BILDU asumida y compartida por todo el resto de Grupos, se eleva al Ayuntamiento Pleno la siguiente

### **PROPOSAMENA**

### **PROPUESTA**

**“EUSKO IKASKUNTZARI Donostiako Urrezko Domina ematea mende osoan zehar euskal kultura garatzeko egindako lana aitortu, estimatu eta eskertuz”**

**“Conceder a EUSKO IKASKUNTZA – SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS la Medalla de Oro de San Sebastián en reconocimiento, aprecio y agradecimiento por su labor en pro del desarrollo de la cultura vasca en esos cien años”.**

**Donostian 2018ko ekainaren 13an**

**ALKATEA / EL ALCALDE**

**ENEKO GOIA LASO**